

Joaquin Almunia: «Atentatuen aurrean konpromiso tinkoagoak hartu behar dira»

«Atentatuek, beldurra eragin ordeztu, borroka indartu behar dute», haren ustez

Agentziak / Tenerife

Joaquin Almunia PSOEko idazkari nagusia deialdia egin zien Espainiako herritarrei, ETaren atentatuen

aurrean, «borroka tinkotzeko eta ez beldurtzeko». Atentatu honek justifikaziorik ez duela gaineratu zuen Almunia, eta une gogorretan «konpromiso tinkoagoak» hartu beharra

aldarrikatu zuen, «doluminak alde batera utzita. Manuel Chavesek «Lizarra-Garazin egotea merezi duenetz» gogoeta egiteko eskatu zion EAJri.



DAVID AGUILAR / EFE

Javier Rojo eta Jose Maria Benegas PSOEko kideak, atzo, Gasteizen emandako prentsaurrekoan.

TENERIFETik egin zituen adierazpenak Joaquin Almunia PSOEko idazkari nagusiak, Fernando Buesaren heriotza ezagutu eta berehala. Mezu bat igorri zien Espainiako herritarrei: «ETaren erailketek ez gaituzte beldurtu behar; terroristen aurkako borroka indartzea ekarri behar dute, legearen eta demokraziaren armak erabiliz». Almunia aburuz, «konpromiso tinkoagoak hartu behar dira une gogorretan, doluminak alde batera utzita». Une gogorrak izan arren, «ideia demokratikoen eta bakearen» aldeko lana indartzeko ordua dela gaineratu zuen.

Atentatu guztiak «alferrikoak» direla adierazi zuen, baina are gehiago «lagun batena bada, maila politiko handiko pertsona batena, askatasunaren alde lan egin duen pertsona batena». Horrela, askatasuna eta demokraziaren defentsan borroka egitera deitu zuen Joaquin Almunia, «justifikaziorik ez duen indarkeria hiltzaile honekin amaitzeko».

Beste hainbat politikari

erreakzioak

- ✕ **Joaquin Almunia** (PSOEko idazkaria nagusia): «Ideia demokratikoen eta bakearen aldeko lana indartzeko ordua da».
- ✕ **Ramon Jauregi** (PSOEko Arabako hautagaia): «Balio handiko pertsona zen, sozialista eredugarria».
- ✕ **Manuel Chaves** (Andaluziako presidentea): «Lizarra-Garazin egotea merezi duenetz gogoeta egin beharko du EAJk».
- ✕ **Teresa Fernandez de la Vega** (Kongresuan PSOEko idazkaria): «Hainbat basati bakea eta askatasuna eragozten saiatzen ari dira».

Kanpaina ekitaldi asko, bertan behera

■ Erredakzioa / Donostia
Espainiako hauteskunde orokorretarako ekitaldi ugari bertan behera uztea erabaki dute alderdi politikoek. PSOE atzo eta gaurko aurreikusita zituen ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituen, eta hala egin zuen IUk ere. Jose Maria Aznar PPko buruzagiak ere ez zuen egin

atzo Lugon (Galizia) egitekoa zuen mitina.

EAJk eta EAK bertan behera utzi dituzte hauteskunde kanpainaren hasiera dela-eta aurreikusita zituzten ekitaldi nagusiak. Besteak beste, kanpainaren hasierarako ostegunerako antolatua zituzten afariak alde batera uztea erabaki dute.

sozialistak ere adierazpenak egin zituzten Buesaren heriotzaren aurrean. Ramon Jauregi «balio handiko pertsona eta sozialista eredugarria» zela esan zuen, eta «minak jota» zegoela gaineratu. Juan Manuel Egiagarai PSOEko ekonomia gaitarako bozeramaileak atentatua «amorrutik eta haserrez» hartu zuela esan zuen. Teresa Fernandez de la Vega, Kongresuko PSOEko idazkariak, «basakeria terrorista» salatu zuen, eta «hainbat basati» bakea eta askatasuna eragozten saiatzen ari direla gaineratu zuen.

Manuel Chaves Andaluziako presidentea «Lizarra-Garazin jarraitzea merezi duenetz» gogoeta egiteko eskatu zion EAJ alderdiari. Eta, «behingoz», EHrekin puskatzeko unea dela esan zien nazionalistei. Bestalde, alderdi politikoei Ajuria-Eneko Mahaia berriro biltzeko eskatu zion. Enrique Baron Crespo europarlamentario sozialistak Buesa beti indarkeriaren aurkako borrokan «lehen mailan» egoten zela azpimarratu zuen.

Javier Rojo • PSE-EEko Arabako idazkari nagusiordea

«Deseginda gaude»

► Javier Rojo PSE-EEko Arabako idazkari nagusiordea izan zen atentatua gertatu zen lekura hurbildu zen lehen alderdikidea. Fernando Buesa hiletako bat zela baieztatu zenean, Rojok, oso hunkiturik, «deseginda» zeudela adierazi zuen. Eskuak burura eramane zituen, eta negarrez hasi zen. Ondoren, hauxe gehitu zuen: «Zer esango dut? Deseginda gaude. Ezin dut hitz egin».

Euskadiko Gazteria Sozialistak •

«Min hitzak besterik ez daude»

► Euskadiko Gazteria Sozialistek gogor gaitzetsi zuten Fernango Buesa eta bere bizkartzain Jorge Diez hil zituen atentatua. Prentsa ohar batean salatu zuten «mafia» batek hil dituela Buesa eta Diez, eta gaineratu: «Ez dakigu zer eskubidetan oinarrituta, gizakien bizitza kentzeko ahalmena hartzen du bere gain». Gazteek azaldu zuten «oroitzapen gogoangarriak» gordeko dituztela «beti lagun eta adiskide izan dugun Fernandorentzat».

Manuel Huertas •

PSOEko Gipuzkoako idazkari nagusia

«Izugarrizko galera da alderdiarentzat»

► Manuel Huertasek oso hitz gogorrak izan zituen atentatua egin dutenen kontra. «Gorritoak eta basakeriak ez du mugarik jende horrengan». Huertasek gaineratu zuenez, «hori da, itxura denez, bide politiko eta demokratikoen alde egiten duten apustua». Huertasek adierazi zuenez, Buesarena «galera izugarria» izango da PSOErentzat.

Juan Jose Lizarbe •

PSNko idazkari nagusia

«Demokratok irabaziko dugu»

► Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusiak esan zuenez, «mundu guztiak jakin behar du demokraziaren eta askatasunaren aldeko guda demokratok irabaziko dugula». Atentatuaren egileei «kabroi eta lotsagabe» deitu zien.